



2012/08/23ko prentsa-oharra


ERAIKUNTZARI ETA ETXEBIZITZARI BURUZKO ESTATISTIKA 2012ko 2. hiruhilekoa

Oin berriko etxebizitzak eraikitzeak aurreikuspena % 59,6 jaitsi da 2012ko bigarren hiruhilekoan aurreko hiruhilekoarekiko eta 2011ko bigarren hiruhilekoarekiko % 80,8.

Etxebizitzaren birgaitzea, berriz, % 16,8 igo da azken hiruhilekoan, baina % 14,4 murriztu da azken urtean.

Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailak egindako Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistikaren arabera, 2012ko bigarren hiruhilekoan aurreikusi da oin berriko 411 etxebizitza eraikitzea; aurreko hiruhilekoan baino 606 etxebizitza gutxiago, hau da, % 59,6 gutxiago. 2011ko bigarren hiruhilekoarekiko 1.731 etxebizitza gutxiago dira, hots, % 80,8ko jaitsiera.

Obra handiko lizentzien kopuruaren bilakaera, lurralde historikoaren eta hiruhilekoaren arabera.
Euskal Autonomia Erkidegoa. 1998-2012.



Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila. Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika

Gipuzkoak, 238 etxebizitzarekin, Euskal Autonomia Erkidego osoan eraikitzea aurreikusitako oin berriko etxebizitzaren % 57,9 hartzen du 2012ko bigarren hiruhilekoan. Aurreko hiruhilekoan baino % 9,5 aurreikusitako etxebizitza



gutxiago dira, eta % 42,5 gutxiago 2011ko bigarrenko hiruhilekiko.

Bizkaia du atzetik, aurreikusita dauden oin berriko etxebizitza guztien % 33,1ekin, 136 etxebizitzarekin. Lurralde horrek % 69,6ko jaitsiera izan du aurreko hiruhilekoarekiko, eta % 87,7koa, iazko hiruhileko berarekiko.

Bestalde, Araban oin berriko 37 etxebizitza eraikitzea aurreikusi da, guztizkoaren % 9; aurreko hiruhilekoan baino % 87,9 gutxiago eta iazko hiruhileko berean baino % 94,1 gutxiago.

Arabako Lautadan egingo dira Araban aurreikusi diren oin berriko ia etxebizitza guztiak, % 83,8; Donostialdeko eskualdean, Gipuzkoakoan % 68,1 eta Bilboko metropolian, Bizkaikoan % 60,3.

Hernanin oin berriko 108 etxebizitza eraikiko direla aurreikusi da, Euskal Autonomia Erkidego osokoen % 26,3 eta Gipuzkoakoan % 45,4. Ondoren honako hauek daude: Erandio, 80 etxebizitzarekin —erkidegokoen % 19,5—, Donostia, 51 etxebizitzarekin —erkidegokoen % 12,4— eta Azkoitia, 35 etxebizitzarekin —erkidegokoen % 8,5—. Euskal Autonomia Erkidegoko 251 udalerrietatik, 39tan —ia 7tik batean— zegoen etxebizitza berriak eraikitzeko asmoa.

Bestalde, hiruhileko honetan aurreikusitako 160 birgaitzeak lehenengo hiruhilekoan aurreikusitako 137 birgaitzeak baino % 16,8 gehiago izan dira, baina iazko hiruhileko berarekiko baino % 14,4 murriztu da.

Euskadiko udalek emandako obra handiko lizentzia kopurua %21,3 handitu da 2012ko bigarrenko hiruhilekoan aurreko hiruhilekoarekin alderatuta baina % 12,4 jaitsi da 2011ko aldi berarekin alderatuta.

Udalek onartzen dituzten obra handiko lizentzien kopurua (eraikuntza ez publikoaren sektorearen egoeraren adierazle gisa erabili ohi da) 673koa izan zen 2012ko bigarrenko hiruhilekoan; hau da, aurreko hiruhilekoan baino % 21,3 gehiago baina urtebete lehenago baino % 12,4 gutxiago.

Hamarretik zortzi —% 81,4— birgaitze-lizentziak dira; % 17,8 oin berriko eraikinetarako, eta gainerakoa, % 0,7, eraisketa-lanak egiteko soilik —guztira 5—.

Bizkaian, obra handiko 302 lizentzia eman dira; Araban, 244; eta Gipuzkoan, 127. Azken horren kasuan, oin berriko eraikinak egiteko lizentziak horien guztien % 29,1 dira, eta Arabaren eta Bizkaiairen kasuan, aldiz, % 16,8 eta % 13,9 hurrenez hurren.

Gipuzkoan % 38 gehitu dira obra handietarako lizentziak aurreko hiruhilekoarekin alderatuta eta % 0,8 2011ko bigarrenkoarekin alderatuz gero.



Arabako gehitzea % 38,6koa izan da aurreko hiruhilekoarekin erkatuta baina % 19,7ko murrizketa izan da iazko hiruhileko berarekin erkakuta. Azkenik, Bizkaian % 5,2 igo dira lizentziak aurreko hiruhilekoarekin alderatuta; iazko datuekin erkatuz gero, berriz, % 10,7 jaitsi da.

Bilboko metropolian eman dira Bizkaiko lizentzien % 72,8. Portzentaje hori Arabako Lautadak Arabarekiko duen ehunekoaren ia berdina da, % 72,5; Donostialdean, ordea, Gipuzkoako lizentzia guztien % 47,2 baino ez da eman.

ERAIKUNTZARI ETA ETXEBIZITZARI BURUZKO ESTADISTIKA EAE-N		2012ko 2. hiruhilekoa		Aurreko hiruhilekoarekiko aldea		Aurreko urteko hiruhileko berarekiko aldea	
OBRA HANDIETARAKO LIZENTZIAK		Kopurua	%	Kopurua	Aldea (%)	Kopurua	Aldea (%)
EAE	Guztira	673	100,0	118	21,3	-95	-12,4
	Oin berriko eraikinak	120	17,8	6	5,3	-68	-36,2
	Birgaitzeak	548	81,4	110	25,1	-18	-3,2
	Eraispenak	5	0,7	2	66,7	-9	-64,3
Araba	Guztira	244	100,0	68	38,6	-60	-19,7
	Oin berriko eraikinak	41	16,8	14	51,9	-26	-38,8
	Birgaitzeak	201	82,4	52	34,9	-30	-13,0
	Eraispenak	2	0,8	2		-4	-66,7
Bizkaia	Guztira	302	100,0	15	5,2	-36	-10,7
	Oin berriko eraikinak	42	13,9	-15	-26,3	-32	-43,2
	Birgaitzeak	259	85,8	29	12,6	-2	-0,8
	Eraispenak	1	0,3	1		-2	-66,7
Gipuzkoa	Guztira	127	100,0	35	38,0	1	0,8
	Oin berriko eraikinak	37	29,1	7	23,3	-10	-21,3
	Birgaitzeak	88	69,3	29	49,2	14	18,9
	Eraispenak	2	1,6	-1	-33,3	-3	-60,0
AURREIKUSITAKO ETXEBIZITZEN KOPURUA							
EAE	Guztira	571	100,0	-583	-50,5	-1.758	-75,5
	Oin berriko eraikinak	411	72,0	-606	-59,6	-1.731	-80,8
	Birgaitzeak	160	28,0	23	16,8	-27	-14,4
Araba	Guztira	67	100,0	-265	-79,8	-597	-89,9
	Oin berriko eraikinak	37	55,2	-270	-87,9	-586	-94,1
	Birgaitzeak	30	44,8	5	20,0	-11	-26,8
Bizkaia	Guztira	200	100,0	-313	-61,0	-996	-83,3
	Oin berriko eraikinak	136	68,0	-311	-69,6	-969	-87,7
	Birgaitzeak	64	32,0	-2	-3,0	-27	-29,7
Gipuzkoa	Guztira	304	100,0	-5	-1,6	-165	-35,2
	Oin berriko eraikinak	238	78,3	-25	-9,5	-176	-42,5
	Birgaitzeak	66	21,7	20	43,5	11	20,0

Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila. Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika



**ETXEBIZITZA, HERRI LAN
ETA GARRAIO SAILA**
Zerbitzu Zuzendaritza
Estatistikarako Organo Berezia

**DEPARTAMENTO DE VIVIENDA,
OBRAS PÚBLICAS Y TRANSPORTES**
Dirección de Servicios
Órgano Estadístico Específico

Informazio gehiago nahi izanez gero:

Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila. Zerbitzu Zuzendaritza. Estatistika Organo Berezia

Donostia-San Sebastián kalea, 1, 01010 Vitoria-Gasteiz

Harremanetarako pertsona: Edurne Domingorena

Tel.: +34-945-01 97 12 Fax.: +34-945-01 64 07

Prensa-oharrak interneten: <http://www.garraioak.ejgv.euskadi.net/r41-429/eu/>.

WEBGUNEA <http://www.garraioak.ejgv.euskadi.net/r41-ovse120x/eu/>